



Danok Kide elkarteak antolatutako saioan, Brigitarren komentua bete egin zen Irungo abesbatza ikusteko.

Ahots zuriak kantuan

■ Nayade abesbatzak emanaldi ederra eskaini zuen Brigitarren komentuan ostiral iluntzean

V. Musika Topaketen barruan, Nayade Abesbatza irundarrak kontzertu paregabea eskaini zuen ostiralean Brigitarren Komentuan. Garai eta estilo ezberdineko eliz musika eta folklorea eskaini zuten "a capella" eta pianoaren laguntzaz. Bertaratu zirenek emakume guztien artean, gizonezko bat ikusi ahal izan zuten, kontratenorea. Honek ahots teknika paregabeaz, besteein bat egitea lortzen zuelarik. •

Klowntuz! Mendia! antzezlan Jalgin

Abenduaren 18an aurreikusitako baldin bazegoen Klowntuz! Mendia! obra, elurra eta eguraldi txarrak bertan behera uztera behartu zuen. Azkenean, ostiral honetan izan genuen ikusgai Jalgin Mari Gorritxuren antzezlan.

Hiriko pailazoa da Mari Gorritxu, "Klowntuz! Mendia!" obraren protagonista, eta oporretan dago. Bere psikoanalistak estres guztia kentzeko mendira joatea gomendatu dio. Jose Artista da psikoana-

lista eta hiriko pailazoa beti bere esanetara dago; hori horrela, mendira doan tren hartuko du baina, mendira iritsi bezain laster, lekuz kanpo sentituko da. Azkenean hirira bueltatu egingo da.

Argumentua ikusita ez pentsa negarrak nagusi izan zirenik, alderantziz, barreak eta algarak eragin zizkion Mari Gorritxuk bildutako publikoari.

Hilabeteko itxaronaldiak, merezi izan du. •



Mari Gorritxu lekun kanpo sentitzen da mendian. Ez du ezer entzuten, bakardadea zer den oso ondo ere ez daki. Xomorroak eta ezezagunak inguratzen zaizkio. Mari Gorritxu galduta dabil mendian, ezezagunek ere kasu egiten diote!



Zubizarreta eta Martinez-ek etorkizun handia dute judoan /2

ALBISTEA /3

Ostegunean Santa Eskean aterako dira hainbat herritar

ALBISTEA /3

Udalak Atsobakar eraberritzeko lanak egingo dituen enpresa aukeratu du

KIROLA /4-5

Aniko Kalovicks eta Mike Kigen Donostiako Kroseko irabazleak

ERREPORTAJEA /6

800 kiloko idia bihartik aurrera salgai Etxezarreta Harategian

Salesianos Urnieta Salesiarrak

Ergoien auzoa, 6 - Tlf: 943 551 789 * D Eredua / Modelo D (Euskaraz)

DBH/ESO

Unibertsitate edo lanean hasi arte giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu...

ikastetxea ikusteko aukera
puertas abiertas

matrikula zabalik
matrícula abierta

otsailak 1-12
1-12 de febrero

zatoz ven!!
www.salesianosurnieta.com

otsailak 6 - 11:00
6 de febrero - 11:00



Leire Zubizarreta eta Esteban Martinez etorkizun handiko judokak tatamian

NEREA EIZAGIRRE

Gazteak dira, ez dituzte 18 urte oraindik eta Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelak izan dira. Bere kirolean goi mailara iritsi direla erakusten duen gerriko beltza ere eskuratu dute biek, batek gainera, 15 urte bete zituen egun berean. Foru Aldundiak Kirolari promesa saria eman zien abenduan eta etorkizunean urrezko domina gehiago eskuratzeko aukera dute, atzo junior mailako Euskadiko txapelketan lehiatu ziren, esate baterako. Leire Zubizarreta eta Esteban Martinez judoekin egon ginen solasean entrenamendua hasi baino lehen.

Esteban Martinezek eta Leire Zubizarretak judoa maite dute, ia egunero kiroldegiko tatamian ikus ditzakegu entrenatzen eta horrek bere fruituak ematen ditu, Euskadiko txapeldun izan dira hiru alditan, Leirek gainera asteburu honetan laugarrena eskuratzeko aukera zuen atzo. Eta gainera, iaz gerriko beltza eskuratu zuten biek.

“15 urte betetzen nituen egunean lortu nuen gerriko beltza. Eta oso polita izan zen,” onartu du Estebanek.

Sanboa eta borroka

Baina judoa egitez gain, sanboa eta borroka ere egiten dute LOKEko judoek.

Eta ondoko koadroan argitaratzen dugun bezala, urtarrilaren 24ean sanbo eta borrokako Euskadiko txapelketan parte hartu zuten. Bai Leirek, baita Estebanek ere bere mailako txapeldun izatea lortu zuten sanbon eta Leirek, gainera, borrokako urrezko domina ere ekarri zuen Lasarte-Oriara.

Kirol hauei buruz galdetu eta “guk entrenamenduetan

judoa egiten dugu, baina sanboa eta borroka antzeko kirola direnez, kurtsoan zehar azalpen batzuk ematen dizkigute eta lehiaketetara goaz,” erantzun du Leirek.

Estebanek zera azaldu digu, “sanbo eta judoko arauak desberdinak dira, baina teoria berdina da, are-rioa lurrera botatzea, beraz ez da zaila. Gainera, jende gutxi egiten duen kirola da.”

Lehiaketaz lehiaketa

Asteburu honetan, berriz, Gorka Aristegiren judoek hainbat lehiaketatan parte hartu dute. Leire eta Estebanek, atzo goizean junior mailako Euskadiko txapelketan lehiatu ziren eta Leire gainera, 23 urte azpiko Gipuzkoako txapelketan ere egon zen arratsaldean.

“Ni juniorretara aurkeztuko naiz, nahiz eta nire maila

ez izan. Kategoria horretan proba egin eta maila handiagoko jendearekin lehiatzeko,” azaldu du Estebanek.

Leirek, “ni junior mailan irabaztera noa eta Espainiako txapelketarako txartela eskuratzera. 23 urte azpikoan, aldiz, Estebanen antzera, proba egitera,” adierazi digu

Maila desberdinetan lehiatu

Irakur daitekeen bezala, maila desberdinetan lehiatzen ohituak daude, LOKEko judokak.

“Goiko mailetan normalean galtzen dugu. Baina esperientzia lortzen duzu, baita aurrera jarraitzeko gogoak ere. Gehiago entrenatu eta haiek menderatzeko gogoak,” adierazi du Estebanek.

“Haiek zu baino esperientzia gehiago dute eta borrokan bazaude ere, gauzak ikasten dituzu,” azaldu du Leirek.

Atzerrian lehiatzen

Esperientzia bila ere, LOKE taldearekin Frantziara joan ohi dira lehiatzera eta zera azaldu digu

Estebanek, “Frantzia zail izaten dugu, haiek lurreko teknikak menperatzen dituzte eta oinarekin irabazten ez badiezu jai duzu.”

Leirek honetaz gain, iaz Hondarribiako taldearekin Italiako txapelketa batera joateko aukera izan zuen eta “Italiarrak ere oso sendoak dira. Haiek oineko teknikak eta lurrekoak menperatzen dituzte eta beraz judoka osoa goak dira, frantsesak baino hobekak. Lehiaketa esate baterako italiarrak irabazi zuten,” azaldu digu.

Espainiako txapelketak

Maiatza aldera Judoko Espainiako txapelketak jokatu dituzte eta martxoan, Sanbo eta borrokakoak.

Judoko txapelketan Estebanek arantza txiki bat du, ez baitu inoiz podiuma lortu, Leirek ordea, iaz brontzezkoa eskuratu zuen.

“Judoko txapelketan podiumean egotea espero dut. Mundialean ibili den lehiakidea izango dugu eta zail izango da hura irabaztea. Beraz, podiuma lortzen badut oso pozik bueltatuko naiz,” aitortu du Estebanek.

“Euskadiko txapelketa eskuratuz gero, Espainiakora podiuma egitera noa, iaz hirugarren geratu nintzen eta ea aurtenean lortzen dudan. Izan ere, maila aldaketa baitago,” aipatu digu Leirek.

Sanboari dagokionez, biek iaz zilarrezko domina eskuratu zuten. Aurtenean, lehenengo hiru postuetako bat eskuratzeko asmoa dute la onartu dute Lasarte-Oriako bi judoka gazte hauek.

Etorkizuna

“Nik jarraitzeko asmoa dut. Nahiz eta nire lehenengo helburua, gerriko beltza, lortu dudana, judoan jarraituko dut entrenatzeak sortzen didan gozamenarengatik eta bertan egin ditudan lagunekin harremanetan jarraitzeko,” onartu du Estebanek etorkizunari buruz galdetzean.

“Baina ikasketetan aurrera egin eta horietarako denbora gehiago behar dudanean, ikusiko dugu,” gaineratu du Martinezek.

Leire ere Estebanekin bat dator, “hasieran gerriko beltza da eskuratu nahi duzuna, baina gero entrenatzea gustuko duzula ohartzen zara eta honetan jarraitu nahi duzula.” •

Emaizta paregabeak Sanbo eta borrokako Euskadiko txapelketan

Urtarrilak 24 igandean, sanbo eta borrokako Euskadiko txapelketan parte hartu zuten LOKEko judoek, maila eta pisu ezberdinetan, eta hauek izan ziren eskuratutako emaitzak:

Sanbon

1. Esteban Martinez
1. Abayuba Gutierrez
1. Amaia Curiel
1. Leire Zubizarreta
2. Mario Garrido
3. Josu Olmos

Borrokan

1. Leire Zubizarreta
1. Amia Curiel
2. Mario Garrido
3. Esteban Martinez

Era honetara, judoka guztiek Espainiako txapelketarako txartela eskuratu dute.



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Urtero legez, hainbat talde Lasarte-Oriako kale, taberna eta baserrietatik ibiliko dira Santa Eskean.

Santa Ageda bezperan, oles egitera

Bertso Eskola, Erketz, Zabaleta, Landaberri eta Amalur Eskola kantuan aterako dira ostegunean

Otsailaren 5ean, urtero legez Santa Ageda eguna ospatuko da. Ohiturari jarraikiz herriko talde ugari, bezperan, Santa Eskean ibiliko dira gure kaleetatik zehar, baita baserrietatik ere.

Landaberri ikastola

Etxeko txikien ahotsetan entzun ditugu lehenik Santa Eskeko kanturak, Landaberri ikastolakoak txikiak goizean ibiliko baitira herriatik zehar.

Erketz Dantza taldea

Arratsaldean, Erketzeko lagu-

nak 18:00etan hasiko dira kantuan eta herriko baserrietatik ibiliko da Santa Eskean.

Amalur Eskola

Ordu eta erdi beranduago, Andatza plazatik aterata, Amalur eskolako trikitilari eta pandero joleen txanda izango da eta herriko erdialdean egingo dute eskea.

Zabaleta Auzo elkarte

Ordu berean, Zabaleta auzokoak izango dira kantuan hasiko direnak. Antonio Plazan elkartu, auzoko kaleetatik

eskea egin eta ondoren baserrietara egingo dute.

Osteguneko kantua ondo prestatzeko, asteartean entsegu bilerak egingo dute, Antonio plazan bertan arratsaldeko 19:30ean.

Bertso Eskola

Lasarte-Oriako Bertso Eskola-koak ditugu azkenak, arratsaldeko 19:30ean Jalgin dute hitzordua.

Bertan lehenengo potea hartu eta tabernaz taberna, kopla kantuan egingo dute Santa Eskea. •

Atsobakar egoitzaren eraberritze lanak esleitu ditu Udalak

Foru Aldundiak eta Udalak 2,5 milioi euroko inbertsioa egingo dute

Lasarte-Oriako Udalak behin betikoz esleitu dio *Obras Especiales Gipuzkoa S.A.* enpresari Atsobakar egoitza eraberritzeko obra.

Proiektu honi esker, hiru onura garrantzitsu izango ditu egoitzak: zentroaren erreforma orokorra, Psikogeriatrako Unitate baten sorrera eta Eguneko Zentroa handitzea.

Inbertsioa 2,5 milioi eurokoa izango da eta obraren finantzazioa Udalarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean izango da.

Orain dela hilabete batzuk, Ana Urchueguia alkateak Aldundiarekin sinatu zuen elkarlanerako hitzarmenaren arabera, Foru Aldundiak %75 abonatu du eta gainontzekoa Lasarte-Oriako Udalak finantzatu du.

Lanak

Adinekoen beharrak asetzeko eta beren bizi-kalitatea hobetzeko apustua dira Atsobakarren epe laburrean hasiko diren lan hauek.

Proiektuak aurreikusten duenaren arabera, eraikina handitu eta altzariak bertan bizi direnen beharretara ego-

kituko dira.

Gainera, Psikogeriatrako Unitate bat sortuko da. 400 metro karratu baino gehiago izango ditu, 15 pertsona bertan tratatu ahal izateko.

Eta azkenik, Eguneko Zentroa 15 plazatik 25era handituko da erantzun egokiagoa emateko.

Espazio bereiztuak

Era berean, perfil ezberdinetako adinduentzako espazioak sortuko dira egoitzan, basikoa, osasun-kargaduna, narriadura kognitiboko perfla eta psikogeriatrakoa.

Lasarte-Oriako alkateak adierazi duenez, beharrezko ikusten du egoitza bizi direnen perfil ezberdinetara egokitzea, izan ere, "ez ditugu gure aiton-amonak udalerritik kanpo lekualdatu nahi, beste egoitza batzuetan egiten duten moduan."

"Gure aiton-amonak bere ingurunean geratzeko defen- datzen dugu argi eta garbi, egokiena hori dela uste baitugu, eta ildo horretan lanean jarraituko dugu," jakin arazi du Lasarte-Oriako alkateak. •

Eskolen aurrematrikula garaia gaur hasiko da

Haurra ikastolaz aldatu nahi duzula, haur txikia lehenengo- goz ikastolara doala eta non ikasiko duen erabaki behar duzula... Lasarte-Oriako bi ikastetxe publikoek aurrematrikula garaia ireki dute otsailaren 12a arte eta, horregatik, gurasoentzat bilerak eskainiko dituzte.

Landaberri ikastola

Landaberri ikastolako adin eremu desberdinetako haurren gurasoentzat bilerak antolatu ditu.

Haur Hezkuntza, 2007. urtean eta 2008. ean jaio diren haurren gurasoentzat bereziki, eta Lehen Hezkuntzako bilera, bihar asteartean da, 15:15ean, Garaikoetxeako eraikinean.

DBHko gazteak dituztenentzat Pintore kalean, REM zeneko eraikinean, asteazke-

nean 18:00etan da bilera.

Aurrematrikula egin nahi dutenentzat, HH eta LHko haurrenak Garaikoetxeako eraikinean egingo dira eta DBHkoak, aldiz, Pintore kalean.

Zumaburu-Sasoeta ikastetxea

Zumaburu-Sasoeta ikastetxeak, berriz, bilera bakarra egingo du 2008. urtean jaio diren haurren gurasoentzat, bihar arratsaldeko 16:45ean, Zumaburuko jantokian.

Aurrematrikula eskaerari dagokionez, Haur Hezkuntzako ikasleek Zumabururen eta Sasoetan egin dezakete, Lehen Hezkuntzakoek, berriz, Sasoetan.

Era berean, 6. mailako ikasleei Bigarren Hezkuntzarako aurrematrikula Sasoetan egingo zaie. •

Umorea eta barre algarak nagusi

Herritar ugari bildu zen larunbatean Manuel Lekuona kulturetxean Mark Rowellen "Desnudos en Central Park" komediaz gozatzeko.

Nahiz eta pertsona baten momentu lartzak erakutsi, Manuel Galiana, Enma Ozores, Maria Jose Alfonso, Paco Piquer eta Walter Gamberini aktoreek barre algarak sortu zituzten eserlekuetan.

Bi saioen amaieran, esker- rarak emanez, ikusleek txalo zaparrada eskaini zieten "Desnudos en Central Park" laneko aktoreei.

Antzerkia Bultzatu

"Desnudos en Central Park" antzezlanak Eusko Jaularitzaren Antzerkia Bultzatu ekimenaren baitan iritsi zen Lasarte-Oriara. •



"Desnudos en Central Park" antzezlanak ikusi genuen larunbatean.

Donostiako Nazioarteko Krosaren LV. edizioa

Lokatza artean korrika kanpoko eta etxeko kirolariak



Kenharak eta eritrearrak nagusi Donostiako Nazioarteko Krosako LV. edizioan

Goitik behera blai eginda eta lokatzez beteta bukatu zuten Donostiako LV. Nazioarteko Krosaren parte hartu zuten kirolariek. Senior mailan neskatan Ukrainiako Aniko Kalovics eta mutiletan Eritreako Medhin izan ziren garaileak. Aniko Kalovics-ek garaipena errepikatu du aurten, aurreko urtean ere lehenengo postua amaitu zuten lasterketa.

ITXASO MORENO

Goitzeo 10:30ean hasi-ta ehundaka kirolari aritu ziren lasterketan Donostiako Hipodromoan. Horietatik lau izan ziren Nazioarteko Krosaren LV. edizioaren garaileak: Ukrainiako Aniko Kalovics, Eritreako Medhin, Ukrainiako Aniko Kalovics, Eritreako Medhin, Ukrainiako Aniko Kalovics, Eritreako Medhin...

Parte hartzaile guztiak bazalek herrikoak gogor lehia-tu eta satatu ziren. Olatz Flores, Gatzaga, Pili Bodegas eta Gonzalo Sukunza nagusiak.

Parte hartzaile guztiak bazalek herrikoak gogor lehia-tu eta satatu ziren. Olatz Flores, Gatzaga, Pili Bodegas eta Gonzalo Sukunza nagusiak.



Maria Dominguez, 3.000 metroan Munduko Txapelduna, 10.a sarru zen.



Kalovics bigarren urtez emakumezkoen kategorian garaile.

postuarekin egin, eta txapela eraman zuten.

Eguraldia protagonista

Euria eta lokatza izan ziren protagonista atzo goiz-eguerdian burutu zen Donostiako Nazioarteko Krosaren LV. edizioaren garaileak: Ukrainiako Aniko Kalovics, Eritreako Medhin, Ukrainiako Aniko Kalovics, Eritreako Medhin...

Bete egin zuten Lasarte-Oria-ko hipodromoan emakumezkoen kategorian garaileak: Ukrainiako Aniko Kalovics, Eritreako Medhin...

Haurrak zein helduak

Hasteko, proba herrikoia egin zen, ondoren haur eta gazte-boak aritu ziren eta amatze-ko, bi proba nagusiak, emakumezkoena eta gizo-nezkoena.

Ugartemendia oroitzen


Txapelduna honen erdialdean Pascual Ugartemendia gogoratu nahi izan zuten. 45 urtean helmugako epaile izandakoa, Hernaniarra jaiotzez Alaiten bizirik baina Lasarte-Oria-ko lortura handia izan zuten beltz Mitxelinen egiten zuten lan eta helmugan hiru aurrenekoak

Amaraun LUDOTEKA

Jolasa baino gehiago!

2. hiru hilabetearen martxakaluzia zabaltz!

Ttakun 943 371448 • aisia@ttakun.com • www.ttakun.com



Olitz Flores laurtekoak kadete kategorian txapela eskuratu zuen.

Lokatza eta euria izan ziren atzo Donostiako Nazioarteko Krosako LV. edizioako protagonista nagusiak



Pili Bodegas hirugarren emakume gizonen kategorian sailkapenean.



Gonzalo Sukunza laurtekoak 34. postuan iritsi zen helmugara.

Elektrizitate ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361 080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

Moxolo, Etxezarreta Harategian "bota" den ganadurik handiena

■ Idi galantaren okela bihar iritsiko da Lasarte-Oriara. ■ 791 kilo idi dira guztiok dastatzeko

Euskal Herriko baserrietan idi gutxi ikusteko, eta are gutxiago probatzeko aukera dago. Normalean, behi eta zekorrek dira harategiko mostradorean aurkitzen ditugunak. Baina oraingoan, idia eta tamaina ederrean dastatzeko aukera izango dugu lasarteoritarrek. Etxezarreta Harategiak 1240 kilotako, eta kanalean 791 pisatu dituen idia salgai edukiko du bihartik aurrera.

ITXASO MORENO

Sei urte zituelarik "Moxolo" bere azken bidaia ekin zion pasaden astelehenean. Bere jaioterria, eta 6 urtez bere bizilekua izan duen Ataun herria utzi eta Donostialdera egin zuen, Manfrido abere-hiltegira hain zuzen ere.

Bere nahira elikatuta, bere nahira ibilitakoa Ataungo mendi magaletan, eta kapritxo hazitakoa, hori dugu "Moxolo". Saler arraza frantziarraren pedigria duen idia genuen, arraza handikoa.

Gutxi dira gure mendi magaletan ikusten diren idiak, normalean behiak eta zekorrek izaten dira baserri abereak, eta gure elikaduran erabiltzen ditugunak.

Baina oraingoan, idi haragia, eta ez-nolanahikoa "oso haragi ona aterako da eta den dena Lasarte-Orian salduko da" aipatzen du Xabier Etxezarreta harakinak.

Ametsa errepikatzen

Etxezarreta harategia, denok jakingo duzun bezala Hipodromo Etorbideko bigarren zenbakiak aurkitzen da, 1963 urteaz geroztik dago gure artean, eta bertan izango da ldi haragi freskoa erosteko aukera. Bere ametsa probatzeko aukera izango dugu. "Aitak behin 1000 kilotako behia bota zuen, eta Moxolotaz hitz egin zidatenean, dudarik gabe nirea egin nahi nuen, aitaren ilusioa errepikatzeke gogoa nuen" dio Etxezarretak.

791 kilogramo okela

1.240 kilo pisatzen zituela joan zen "Moxolo" abere-hiltegira "sasoi ederrekoa zenez asko gizendu da" dio Xabierrek. Abereak zahartzen hasten direnean ez dira gehiago gizentzen, jan eta jan aritu arren. Moxolo tarteko adinean zegoen eta bere momentua zeukan "platerera eramateko garaia" gaineratu du Xabierrek.



Ez-ohiko tamaina zuen ldi honetatik aterako diren txuletak edo xerrak ere tamainu ederra edukiko dute.

Zapore berezia

Seler arraza ona baldin bada, gizentzeko (artoarekin eta belar-ondoarekin) izan duen kapritxoak era ere ona izan da; "zapore berezia emango dio haragiari" deritza Xabierrek. Denetik jan du Moxolok eta hori nabarituko dugu bere haragia probatzerakoan.

"Bisitan joan naizenean denetik zeukan askan, bisitatu ere egin dudalako" kontatu digu Xabier Etxezarretak.

Aste betez samurtzen

Asteartean hasiko dira pixkanaka Moxolo herrira ekartzen. Ganadu zaharra hil ostean "pausat zen utzi behar da".

Hil berritan gogor samarra izaten du haragia, baina "samurtzen joaten den heinean zaporea galtzen joaten da" gaineratzen du Xabierrek, beraz, margen egokia bilatu behar, "zaporea galdu ez dezan eta samurra egon dadin".

Prezioa

Idiaren serra batek gehiago balioko duenik ukatu egin du harakinak: "Lasai egon, idia izateagatik ez diogu prezioa igoko, behi haragiaren berberak mantenduko ditugu".

Xabierren eta bere lagunaren kapritxoak dastatzeko aukera paregabea galtzeko aitzakiarik ez. Txuletak, solomiloa, xerrak, xehakinak, denetik bihartik aurrera Etxezarreta harategian. •



Sekretuak gordeko ote zituen? Mingaina luzea behintzat bazuen. Kontent dago Xabier lortu duen haragiarekin.

“ Ez gaude horrelako abere handiak ikustera ohituak, eta abere hiltegiaren Moxolorena show-a izan zen



Bihotz handikoa izan zen Moxolo? 300kg-tako zekor batekin alderatuta bai.

Egunero

Erakusketa

ARTEA AFRIKAN izeneko erakusketa ekarri du *Max Mbaye* senegaldarrak. Erakusketa koloretsua Jalgi kafe antzokian ikusi daitekeena. Lanak salgai daude. Jalgi kafe-antzokian, 9:00etatik 23:30era.



Asteazkena, 3

Hitzaldia

ARRETA PSIKOLOGIKOAREN ZERBITZUA ezagutzera emateko Jesus Muñoz psikologo eta psikoterapeuta lasarteiarrak hitzaldia emango du. Emakumeen Zentro Zibikoan, 17:30ean.



Arreta psikologikoaren zerbitzu berriaren aurkezpena

ARRETA PSIKOLOGIKOAREN ZERBITZUA ezagutzera emateko Jesus Muñoz psikologo eta psikoterapeuta lasarteiarrak hitzaldia emango du.

GAUR, ASTELEHENA
EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOAN
18:00ETAN

ESAZU IRRATIA



Esazu irrati programazioa

Ostiraler programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiraler 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Eskutitzak

Eguzkiren alegazioak errausgailuaren egitasmoari

Zubietako errausgailuaren egitasmoari eta honek ingurumenean izango duen eraginaren azterketari alegazioak aurkeztu dizkie EGUZKik.

Eguzki talde ekologistak Zubietan eraiki nahi den hondakinen energi balorizazioarako unitatearen proiektu eta honek ingurugiroan izango duen eraginaren azterketaren aurkako alegazioak aurkeztu ditu, hau da, ulertu gaituzten, errausgailuaren aurkako alegazioak aurkeztu ditu.

Laburki adierazita, proiektu honen kontra jarri ditugun alegazio edo argudioak zortzi dira:

1.- Natura 2000 Sareari eta konkretuki ES2120010 kodigoa duen Oria ibaiko LICari, eragingo dizkion erasengatik, hain juxtu, bi espazioen hurbiltasunarengatik eta bertan gailentzen diren haizeengatik.

2.-Besteak beste Usurbil, Oiartzun eta Hernaniko herrietan, birziklapen eta gailaketa ematen ari

diren eta gerora emango diren giza eta ingurumen arrerapenen deuseztapena ekarri dezakeelako.

3.- Gipuzkoako gaikakobilketa moteldu eta azken finean geldiarazi egingo delako hondakinen bereizi gabeko errausketa horrek. Horregatik eskatzen dugu PIGRUG delakoan ezartzen diren helburuen berrikuspena.

4.- Etxeetako materia organikoaren birziklapen egokiaren bidez lortzen den karbonoaren zikloaren itxiera galarazten duelako hondakinen bereizi gabeko errausketa horrek. Beraz, zikloa ez ixtean karbono atmosferara isurtzen da eta horrek eragin kaltegarria du aldaketa klimatikoan.

5.- Atmosferara etengabe konposatu toxiko eta bereizi gabekoa isuri, lurra erasan eta urak kutsatzen dituelako. Bestela, Bizkaiko Zabalgarbiren kasua begiratu dezakezue.

6.- Errausketak sortuko dituen hondakinen %36 (pisutan) beste hondakin berri bat bihurtuko direlako, erraus eta zepa, alegia. Eta

hondakin berri hauek, derri-gorrez eraiki beharko den segurtasun handiko zabortege batetik kudeatu beharko direlako.

7.- Erraustegi inguruko herrietako, hau da, Donostia, Usurbil, Lasarte-Oria, Hernani, Andoain, Urnieta, Aduna, Zizurkil, Orio eta Zarauzko biztanleen osasunean eta ingurumenean eragingo dituen eritasun eta sortuko duen erasanarengatik.

8.-RAMINP delakoan hirigune eta erraustegiaren artean finkatzen eta aurrikusten den 2.000 metroko distantzia horren araua urratzen duelako.

Hau guztia kontuan izanda, Eguzkik zera eskatzen du, momentuz geratu daitezela bertan behera Donostiako udal-barrutian hondakinen energi balorizaziorako unitateari buruzko egitasmoa eta ingurugiroan izango dituen eraginaren azterketa onartzeko beharrezkoak diren administraziozko guztiak eta era berean aztertu dadila behin betirako atzera botatzea.

Eguzki

Oharrak

Santa Teresa ikastetxean matrikulazioa zabalik

Santa Teresa ikastetxeko matrikulazio epea irekita dago.

Zumaburu-Sasoeta ikastetxea

Zumaburu-Sasoeta ikastetxeak aurrematrikula irekiko du otsailaren 1ean, astelehen. Horregatik, otsailaren 2an, asteartea, arratsaldeko 16:45ean Zumaburuko jantokian, bilera informatiboa egingo du 2008.urtean jaio diren haurren gurasoentzat.

Landaberri ikastola

Aurrematrikula garaia laster irekiko duenez, Landaberri ikastolak bilera informatiboa egingo du 2007. eta 2008. urtean jaio diren haurren gurasoentzat, otsailaren 2an, asteartea, arratsaldeko 15:15ean Garaikoetxea eraikinean.

Erketzeko inauterietako konpartsa

Erketz Dantza Taldean jakinarazi nahi du inauterietako beraien konpartsan ateratzeko, entsaioak urtarriaren 26an eta otsailaren 2 eta 9an (asterteetan) izango direla Zumaburuko eskolatan iluntzeko 8etan.

Gaia Munduko Dantzak da, ze herrialdeko moztorra pareja bakoitzak erabaki behar du. Gero dantzak denok batera egingo ditugu. Edonorentzako dago zuzendua, asteartean azaldu besterik ez du egin behar, bai bai ume edo bai heldu.

Tokila bat agertu da

Gabonetan erdigunean haurrentzako tokila bat agertu da. Artilezkoa da, beltza. Galdutuenak berreskuratzeko Tkunetik pasa dadila (943 371448).

Marrakzi eta pintura eskolak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseak hasi dituztela dagoeneko eta oraindik izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiralean 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

Pala Txapelketan izena emateko epea zabalik

Ostadar K.F.ak XVI. Gomazko pilotako Pala txapelketa antolatzen du eta izena emateko epea ireki da. Antolatzaileek adierazi dutenez, bikote bakoitzak inskripzioa egitekoan 22 euro ordaindu behar ditu.

Era berean, bikoteek txapelketako oinarriak eskuratzeko Ostadarreko bulegora, Geltoki kalea 25 zenbakia hurbildu edo 943 360 433 telefonora deitu behar dutela ere azpimarratu dute, otsailaren 5a baino lehen.

Ostadarren zozketako zenbakia, 8588

Ostadar K.F.ak zozketa txartelak saldu zituen abenduan zehar. Saria nekazal etxe batean asteburu pasa zoragarririk bat da.

Elkarteak jakin arazi duenez, zenbaki irabazlea El Niño loteriako zenbaki sari-tuaren azkeneko 4 zenbakiekin bat datorren txartela da, 8588 zenbakia.

Irabazleak Ostadarreko bulegora deitu, 943 360 433, edo Geltoki kalea 25 zenbakian duen egoitzara hurbildu behar da.

Errugby eskola martxan igandetik aurrera

Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarri da dagoeneko. Otsailaren 7an, igandean, egingo da lehenengo entrenamendu-erakustaldia goizeko 09:00etatik 10:30era bitartean eta bertan parte hartzea Lasarte-Oriako ikasle guztiak daude gonbidatuta. Lehenengo saio honen ondoren, igandero egingo dituzte entrenamenduak.



Inauteriak

Aurten ere Tkun Kultur Elkarteak deialdi zabala egin nahi die herritarrei inauterietako desfile bateratuan parte hartzeko. Filmak izan da aukeratutako gaia. Parte hartzeko asmoa baduzue, ostiralean bilerak egingo dira Iñigo de Loloia kaleko Gazte Lokalean 17:00etan. Edozein zalan-tzarekin deitu edo pasa lasai Tkunetik, 943 371448. Animatu eta hartu parte!

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

txintxarri@ttakun.com

Landaberri

ikastola-institutua

MATRIKULAZIOA otsailaren 1etik 12ra bitartean

Zeure herrian bertan,
euskaraz



HEZKUNTZA PROIEKTU BATERATUA ETA GAURKOTUA, ESKOLA KOMUNITATEAK ADOSTUA

- 2 urtetik 16 urte bitartekoa
- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituen
- Herrian integratutako plangintza
- Atzerriko hizkuntza:
 - ingelesa 4 urtetik aurrera
 - frantsesa aukeran, DBHko 2.mailatik aurrera
- Teknologia berrien erabilera txiki-txikitik. DBHn e Gela digitala eta ikasgela guztietatik sareko konexioa
- Behar berezia duten ikasleentzat:
 - gela egokituak, laguntzako irakasleak, aholkulariak eta orientatzaileak
- Kirola, antzerkia, dantza eta bestelako eskolaz kanpoko jarduerak
- Garraio-zerbitzua
- Goizeko 08:00etatik 09:00etara harrera zerbitzua.

Bilerak:

- **DBHkoak** otsailaren 3an 18:00etan Pintore kalea 2an
- **HH eta LHkoak** otsailaren 2an 15:15ean Garaikoetxean

Matrikulatzeko tokiak:

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO matrikulak
Garaikoetxea eraikinean • Tel.: 943 37 06 62 • pglandaberri@euskalnet.net

DBH-KO matrikulak
Pintore kalea 2an • Tel.: 943 37 28 90 • landabhi@euskalnet.net